

Ez gaitu harritu



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

PAULA ESTÉVEZ

Auzokideak ez zeuden harrituta. Hala entzun ahal izan genuen irratitik, kotxean, etxera bueltan gontozela. Han-hemenkako idatzizkoetan ere jaso zuten kazetariak, edozein gertaera lazgarri suertatzen denean egin behar omen duten bezala: espero modukoa ei zen; dena ei zen zarata, oihera eta txilio etxe hartan; poztasunik ez ei zitzaien igartzen kalera jaisten zirenean.

Beste sasoi batzuetara egin zidan buruak atzera. Auzokideen zenbat testingantza antzeko ez al dira jaso emakumeren bat hilik aurkitu denean? Ez txarto ulertu, harako sasoiak oraina ere badira. Baina egindako lan sozial eta feminista guztiaren ostean, geure burua interperaturik, behinbat, sentitzen dugu etxeko paretaren beste aldetik susmoa hartzekotan. Aitzitik, dirudienez, ez da halakorik suertatzen jopuntuan daudenak umeak baldin badira.

Umeak oraindik dira jabetza pribatua. Emaztea senarraren jabetza pribatua zen bezalaxe. Askoz pribatuagoa harremanen pribatizazioaren aroan, norbanakook geure eremu partikularrenetan isolatu eta inguruan hesia altxatu dugun honetan. Eta, pertsona txiki horiek, zaharraren zaharrez hil-

tzen diren artean, tribuarekin elkarrekintzan eta elkarren eraginpean biziko diren arren, tribuak ez bide dauka esatekorik. Konbentzio sozial sendoa da. Ondo dakigu. Horregatik, akaso, isiltzen dira harritzen ez diren auzokideak.

Baina askoz harago doan afera da. Gure zerbitzura dauden bitarteko erabilgarriak izan dira betidanik umeak. Bizimodu petral hau (eta gehitu nahi beste abizen: kapitalista, kontsumista, patriarkal, esplotatzaile, bihozgabe...) frustrazio sorrarazle erraldoia da. Eta gauza jakina da, frustrazioak kudeatzen jakiten ez denean, biderik errazena hartu ohi dela: ahulagoa den beste bati ordainarazi. Ez dakigu boteretsu sentitzen, beste bat zapalduz ez bada.

Haurreria, botere harremanen matza konplexuaren barruan, ahulezia egoera berezian dagoen talde soziala da. Bai, talde soziala, berezko ezaugarri guztiekin eta berezko zapalkuntzak pairatzen dituen. Eta, ezaugarri propio horiek, besteak beste, dakarten mendekotasun eta dependentzia maila handiagatik, autodefentsarako aukerarik ez daukan bakarrenetakoa.

Inoiz kontaktu dudan bezala, latinezko *infans*, *infantis* delakoak “ahotsik ez daukana” esangura dauka. Infantea ez

da hitz egiten ez dakiena, baizik eta jende aurrean hitz egiten ez duena, esateko daukana azalarazten ez duena. Manfred Liebele dioenez, “mutututako taldeen” ezaugarriak dauzkate: jendartean behe maila betetzen dute; zilegitasuna kendu zaie eta ez dute onespentz izaten (“umekeria” mespretxuzko terminoa da, adibidez); ez daukate erabakitze ahalmenik, ezta euren interes zuzenekoak diren gai politiko, ekonomiko eta sozialetan eragiteko aukerarik ere.

Tratu txarrak eta bortxakeria eskaileraren azken maila dira, ikusgarriena, zapalketa guztietan gertatzen den bezala. Horiek kasu isolatutzat hartu ohi dira, guraso anker eta basatien gehiegikeriak balira bezala, testuinguru sozio-politikorik gabe. Ez gaude prest ahotsik ez daukaten horiei ahotsa emateko, ezta euren ahots politikoa izateko ere.

Urteetan aurrera joan ahala, gure kokapen soziala nabarmenki hobetzen den momentutik, nahiago izaten dugu, agidanez, hura ahaztu, atzean utzi. Haurtzarora idealizatzerantz ere jotzen dugu sarri askotan. Baina, funtsean, denok izan ginen noizbait menpeko talde sozial horretako partaide. Ikasgai baliotsuak izan beharko genituzke handik ateratzeko. ●